

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Sondika*



Aurkibidea

# Udalerria: Sondika

## Sarrera



Bizkaiko erdialdean dagoen udalerria da, Txorierriko eskualdearen bigarren populatuena Derio ondoren. Hainbat urtez udalerrian egon da Bilboko aireportuaren terminala, 1997an hau Loiura lekualdatu arte. Basozabal da herrigune nagusia. Udalerrri mugakide hauexek ditu: Iparraldean Loiu, hegoaldean Bilbo, ekialdean Derio eta mendebaldean Erandio. 1966tik 1982ra Bilborekin lotuta egon zen. Sondikatarren jatorrizko hizkera mendebaleko euskararen aldaera da. Gaur egun, biztanleen heren bat inguru euskal hitzuna da.

- **Biztanleak:** 4.389
- **Euskaldunak:** %36,98

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **1**
- Zintak: **2**
- Pasarteak: **22**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **22**

## Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Tximintx euskara elkarte

## Hizlariak

### Pantxi Sangroniz Mentxaka (1913-2014)



1913. urtean sortu zen Sondikako Goronda baserrian. Gurasoak eta aitona-amonak ere sondikarrak zituen. Hamaika urtera arte ibili zen herriko eskolan eta gerora, baserriko lanetan eta esne-banatzaile modura ibili zen Bilbon.

# Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

## 1. Ohiturak eta bizimodua

### 1.1. Auzoko umeak mozkortu

- **Hizlaria(k):** Sangroniz Mentxaka, Pantxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea - Zubiri, Itsasne
- **Erref:** SON-002/005
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:03:58. **Bukatu:** 00:06:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Berak eta lehengusinak 8-10 urte zituztela, auzoko mutiltxo batzuei askariagaz batera ardoa eman zioten. Horretako batzuk "tontotuta" eroan zituzten etxera.

#### Transkripzioa

-Hori be ez dau txarto. Ni ta nire lengusina ba gatzetxuk, zortzi-hamar urte eta han auzoan mutiltxo bi eta emoguzen meriendea mutiltxuri ta meriendeaz ardaua. Kontu [¿] atara, guk euki genduzen orduen zortzi-hamar urte eta bueno [hor jua zien] umeak erdi tontotute . Eta esan nontsen lengusineri: "Juani, ia honek umeak nora eroan ber di?" "Ba etzera, euron etzera" eta bat "nik toñue gure dot", ene! eta besteak lo. "Ze ein dotsezue umeari?" eta guk "Ezebez! Meriendea emon." Eta "Jesus zer dekie ba? Bata toñun eske ta bestea lo". Horretan pasa zan dana, akabe seakabo, [ia esan] gendun, [ia ez duen] ekarten umek hona. Biok olgeku e baie umeak dauzela euron lekuen. Oin [aiegau za] "berda"?

-Alaba: Mozkortu ein zenduen umeak. Ta nire lobeak, akordeona, akordeonea euki zon zure arrebeak, akordeoia euki zon.

-Nok nire nebeak? Bai, baia hak koitaduek ez ekin, zer jakingo zon ba, ez eben euki estudiorik.

-Alaba: Harek umeak haren bile egon ziren, toñoa eskatan, ama.

-Ai, mutiltxue? Bai baie esan dot ba toñuan eske; "nik e toñue gure dot, nik e toñue gure dot" ta bestea lo. "Zer deke honek umeak?". Hor akabe zan asuntua, gero, gero datozenak.

## Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

### 1. Erdararik jakin ez (SON-002/003)

Umetan eskolara hasi baino lehenago ez zekiten gaztelaniaz. Santanderreko neskato bat izan zuten auzoan eta berak eta lehengusinak ez zekiten erdaraz. Behin, beraiek euskaraz egindako galdera bat burua astinduz erantzun zienez, erdaraz bazekitela pentsatu zuten.

## **2. Maistrak emandako zaplaztekoa (SON-002/006)**

Eskola garaiko ganorabakoa oroitzapenak ditu. Behin maistrak esandako ariketa ez zuenez topatzen zaplaztekoa eman zion. Baina gero, maistra bera ere ez zen izan gai ariketa hori liburuan topatzeko.

## **3. Mairuak etxean (SON-002/008)**

Gerran abioietatik estalduten (ezkututzen) egon ostean, etxera bueltatu eta ez zegoen inor, mairu batzuk baino ez zituzten topatu. Oilarra eman zieten mairuei.

## **4. Neba Lizarran preso (SON-002/010)**

Bere neba zinegotzia zen eta Lizarrako (Nafarroa) kartzelan egon zen. Hura bisitatzeraz joan zen ahizpa eta koinatagaz batera.

## **5. Neba kartzelatik ateratzeko sinadurak behar (SON-002/011)**

Bere neba zinegotzia zen eta Lizarrako (Nafarroa) kartzelan egon zen. Sinadura-bilketa egin zuten kartzelatik ateratzeko. Sinadura haiek lortzeko bidean bizitakoak aipatzen ditu.

## **6. Sondikako idazkaria fusilatu zuten (SON-002/012)**

Bere neba herriko zinegotzia zen eta atxilotu egin zuten. Herriko idazkaria, Justo Ajuria, fusilatu egin zuten.

## **7. "Sua hemendik eta sua handik" (SON-002/014)**

Gerra garaian, Sondikan egon zen. Bilbon esneak banatzen ere ibili zen abioiei kasu handirik egin barik. Sua hemendik eta sua handik zutela egon ziren; hala ere, ez ziren inora joan.

## **8. Ogi zuria vs beltza (SON-002/019)**

Baserrian denek ez zuten urte guztirako jatekoa izateko zortea. Garia errotara eroaten zuten irina egiteko eta ogia egiteko. Beste ogia, errazionamendukoa, beltza, behiek ere ez zuten jaten, hain zen txarra! Gerraostean errotak zabalik egon ziren, agian estraperloan arituko zirela uste du.

## **9. Itsasoz heldutako estraperloa (SON-002/021)**

Pantxi Bilbora joaten zen esnea saltzera. Behin aita lagun zuela, andre bategaz topatu zen bertan eta harekin itsasontzi batera joan eta jenero asko eroan zuen etxera. Estraperloan produktu asko lor zitezkeen.

## **10. Jeneroa entregatu beharra eta estraperloa (SON-002/022)**

Gerraostean udaletxera baserriko jeneroa entregatu behar izaten zuten: artoa, garia... Etxerako nahikoa ez izan arren, eman egin behar izaten zuten. Txerria eta txahala gauez hiltzen zen, estraperloan; galarazita zegoen-eta, bestela hori ere eman behar izaten zuten. Pisua manipulatzeko tranpak azaltzen ditu, besteak beste. Gauez farola amatatuta joaten ziren batetik bestera, ez harrapatzeko.

### **11. Ogi zuria jateko nahia (SON-002/025)**

Ogi zuria izatea asko kosta zitzaien. Labesua egiten zuten labean.

### **12. Arropak garbitzera erreka harrira (SON-002/026)**

Arropak errekan garbitzen zituen. Etxean xaboia emanda bertan garbitzen zituzten. Bakoitzak bere harria zuen eta han jotzen zituzten arropak, astinduta ondo garbitzeko.

### **13. Lurrunezko lisaburdinak (SON-002/028)**

Izarak biren artean tolesten zituzten, ez lisatu behar izateko. Lisaburdinak lurrunezkoak ziren. Horien erabilera azaltzen du. Gerora beste lisaburdina bat izan zuten, txapa gainean berotzen zena.

### **14. Ginarra (erratza) (SON-002/029)**

Etxea ginarragaz "inerrea" (erratza) garbitzen zuten eta urarekin garbitzeko belauniko jarrita igurtzi behar izaten zen behegaina. Lehengo ginarrak gaur egungoen antzekoak zirela dio.

### **15. Zakuekin egindako espartzuak (SON-002/031)**

Zakuekin egindako espartzuak urarekin busti eta ura ei zen antzinako lanbasa (fregona). Sute zaharrean zakuekin egindako espartzuak erabiltzen zituzten, bestela trpuak.

### **16. Arropa eta takoi altuko zapata dotoreak (SON-002/033)**

Lehengo arropak terlizezkoak ziren. Neskek ez zituzten prakak janzen. Domekako arropak dotoreagoak ziren. Bere ama horretan "kapritxosa" zela dio eta berak nahi zituen arropak erosten zizkion Pantxiri. 12 urterekin takoi altuko oinetakoak erabiltzen hasi zen.

### **17. Txakur amorratuarekin bizitakoak (SON-002/035)**

Behin nebak txakurra hil zuen txakur amorratuak ahausi egin ziolako. Txakur amorratua izatea kontu larria zen. Orduan. Agurainera (Araba) joan ziren bertako santu batek horrelakoak osatzen zituelakoan. Baina amari Bilbon esan zien hobeto zela medikuarenera joatea txertoak hartzeko.

### **18. "Sanatene" (SON-002/037)**

Lehen ez ziren medikuarengana joaten, "sanatene"ak egiten zituzten. Zer diren azaltzen du.

### **19. Gabon gaueko ogi-koskorren ohitura (SON-002/039)**

Gabon gauean, afaltzen hasi aurretik, ogiari zati bat kendu eta mantel azpian gordetzen dute datorren urterako. Gero txakurrari ematen diote urtebetegarrenean ez dadin amorrotu.

### **20. San Juan bezperako kanta (SON-002/042)**

San Juan bezperako kanta abesten du alabagaz batera.

### **21. "Din-dan nor hil da? Peru zapataria..." (SON-002/046)**

"Din-dan nor hil da? Peru zapataria..." abestia kantatzen du alabak lagunduta.



**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - [ahotsak@ahotsak.com](mailto:ahotsak@ahotsak.com)